

# BAIMENA:

Gorrieriaren diagnostiko goiztiarrerako probei buruzko informazioa jaso ondoren:

(Izena eta bi deiturak)

..... NAN/AIZ zenbakidunak, ..... naizen aldetik  
(aita-ama-legezko tutorea)

haurraren .....  
(haurraren izena eta bi deiturak)

- BAIMENA EMATEN DUT aipatu probak egiteko  
 EZ DUT BAIMENIK EMATEN aipatu probak egiteko

Horrenbestez, baimen hau sinatzen dut:   
(eguna eta sinadura)

Lege gordailua: NA -

## Jaioberriaren Hipoakusiaren Detekzio Goiztiarrerako Nafarroako Programa

Harremanetarako telefonoak:  
848 429 819 edo 848 423 498

Helbide elektronikoa:  
[deteccion.precoz.hipoacusias@navarra.es](mailto:deteccion.precoz.hipoacusias@navarra.es)



# Bizitza osorako

## Entzumenaren proba

Jaioberriaren  
Hipoakusiaren Detekzio  
Goiztiarrerako Programa



**Zorionak!**

Zuekin batera ospatu nahi dugu semearen/alabaren jaiotza. Bizitza zoriontsua eta osasungarria opa diogu.

Jaioberrien sortzetiko gorreria ez da batere ohikoa, eta gurasoek ez ohi diote erraz antzematen hainbat hilabete igaro arte. Horrexegatik, gorreria kasu urri horiei goiz antzemateko, beharrezkoa da jaioberri guztien entzumena aztertzea jaio ondoko lehenbiziko egunetan.

Jaioberrien gorrieriaren detekzio goiztiarrari esker, arazo larri hori gainditu daiteke, eskura ditugun tratamenduak erabiliz. Haurraren garapen integrala lortuko da horrela.


## Entzumenaren proba



Detekzioa **Otoigorpen Akustikoak** izeneko probaren bidez egiten da, hots, belarrira hots bat bidaltzen da eta belarriak ematen duen erantzuna jasotzen da.

Proba oso erraz eta azkar egiten da eta ez dio inolako minik eragiten umeari. Doan eskaintzen zaie Nafarroan jaiotako neska-mutiko guztiei.

Zure alabaren edo semearen proba ongi ateratzen ez bada, ez zaitetz kezkatu. Jaio berrikan maiz gerta daiteke, denbora gutxian desagertzen diren arrazoiak direla bide. Proba egiteko unean berean esanen dizugu zein den emaitza, eta, gero batean berriz ere egin behar bada, bigarren proba horretarako hitzordua emanen dizugu.



**Jaioberriaren  
Hipoakusiaren  
Detekzio  
Goiztiarrerako  
Nafarroako Programa**